

Gure proiektua aurrera ateratzeko ezinbestekoa dugu jendea gai eta prest egotea gurekin lanean ibiltzeko eta behar ditugun baliabideak lortzeko. Hori dela eta, kaleetan barrena, paperak ezarriko ditugu. Paperetan, eskeintzen dugun lanaren inguruan informatuko ditugu interesatuak eta horrekin batera telefono zenbakia ezarriko dugu interesatuak hots egin dezaten.

Garrantzitsua da, baratzean lan egiteko esperientzia duen norbait izatea gure artean. Bestalde, bezeroak ere oso garrantzitsuak dira lan munduan, beraiek gabe, egia esan ez genuke ezer egingo. Gure kasuan geure bezeroak janaria erosteko zailtasunak dituzten gizakiak izango dira, hau da, ez dute nahiko diru irabazten beraien lanetan, familiari jaten emateko edo ez dute lanik. Azkenik, esan behar duguna da, udaletxeak diru laguntzak eskainiko dizkigula, diruaren kontuan lagundu dezan.